LARRABETZU UDALA

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Esp. Zkia.- OZ-2025-103
EE-2025-00500
B052-2026-00001

LARRABETZUN "OSASUNA ETA LANDARAK" PROIEKTUAK GARATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZURAKO OHIKO PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKO KONTRATAZIO-PROZESUA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIAREN KARATULA

A.- Kontratuaren objektua

Kontratu honen xedea, Larrabetzun "OSASUNA eta LANDARAK" proiektua garatuko duen laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzea da. Proiektu horren helburua, lorategian zentratuz osasuna sustatzea da, lorategi ekologikoaren ikuspegia eta udalerriaren komunitatearen dimentsioa bultzatuz.

OSASUNA eta LANDARAK KALEA: Ekintza berean ariketa fisikoa eta udal-lorategiekin erlazionaturik dauden jarduerak burutzearen aldeko udalaren apustua da. Horrela, ariketa fisikoa egitera itzultzea bultzatu nahi da, zehazki adin jakin bateko pertsonen artean ibilketak egitea, lorategia aitzakiatzat eta erdigunetzat hartuta. Era berean, helburua osasun maila emozionala zein espirituala hobetzea da, naturarekin harremanetan egonez eta hura zainduz (Jardiekologia).

OSASUNA eta LANDARAK ESKOLAN: Larrabetzuko eskola publikoko haurrak lorategiaren eta basoaren eremuan inplikatzeko udal apustua da, ikasleen eta lurrarekiko lanaren arteko lotura landuz. Gainera, ariketa egiteko eta osasuna sustatzeko beste modu bat eskaini nahi da, ikuspuntu integral batetik (osasun fisikotik osasun mentalera, dimentsio emozionala, espirituala eta gure osasun pertsonalaren dimentsio soziala kontuan hartuta).

CPV nagusia: 98330000-5 Ongizate fisikoko zerbitzuak
CPV osagarriak: 98336000-7. entrenamendu-, ariketa- edo aerobic-zerbitzuak; 80540000-1. Ingurumenaren arloko prestakuntza-zerbitzuak; 90721100-8. Paisaia babesteko zerbitzuak; 77310006-6 berdeguneak landatzeko eta mantentzeko zerbitzuak.

B.- Zerbitzu sustatzailea

Larrabetzuko Udala.

C.- Kontratazio organoa eta zuzendaritza

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Alkatetza

Askatasuna Enparantza, 1 48195 Larrabetzu (BIZKAIA)

Kontratazio mahaiaren osaketa.

Presidentea	Amaia Lekue Mezo, Udaleko Alkate-Presidentea.
Bokala 1	Ane Ituiño Pérez, AOT Udaleko funtzionarioa
Bokala 2	Ortzi de la Quintana Ibáñez, Udaleko Idazkari Kontu-hartzailea.
Bokala 3	Izaskun Etxebarria Vadillo, Udaleko aparejadorea, funtzionarioa
Idazkaritza	Nerea Uriarte Iza, Udaleko funtzionarioa

D.- Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia.

- Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua (SPKL 100 art.)

  Kontratuaren lizitaziorako oinarrizko aurrekontua EHUN ETA BOST MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO (105.270,00 €) da. Hurrengo eran banatzen da:

Urte kopurua	3
Oinarria	29.000 x 3= 87.000
BEZ	%21 = 18.270
GUZTIRA	105.270,00 euro

- Kontratuaren balio zenbatetsia (SPKL 101 art.)

  Kontratuaren balio zenbatetsia, luzapenak eta aldaketak barne, BEZa kenduta, EHUN BERROGEITA HAMAR MILA BOSTEHUN EURO da (155.000,00 €). Hurrengo eran banatzen da:

Urte kopurua	3
Urteko oinarria	29.000 x 3= 87.000€
Prorrogak	1+1 (29.000 x2 = 58.000)

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Aldaketak: gehienez bi baso	5.000 x 2= 10.000 (BEZ gabe)
TOTAL	155.000,00 €

E.- Kontsignazioa aurrekontua

Kontratu hau modu aurreratuan izapidetuko da 117.2 artikuluan eta 3.2 xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera eta 2013ko urriaren 18ko IGAEren instrukzioarekin bat eginez. Horregatik 2026ko ekitaldirako aurrekontuan dagokion aurrekontuko partida agertuko da. Kontratua esleitu ondoren aurrekontua indarrean egongo ez balitz, kontratua finantzatu behar duten baliabideak kontsolidatu arte etenda geratuko da esleipena.

Era berean, Kontratazio organoak hitzematen du nahikoa kreditu erreserbatuko duela lizitazio honen bitartez konprometitutako etorkizuneko ekitaldietarako.

Aurrekontu partida: 341 22607

Zerbitzu kontratu honen finantzazioaren %100 udalekoa izango da.

F.- Urteak

2026 urtea
2027 urtea
2028 urtea

Luzapena 2029 urtea
Luzapena 2030 urtea

G.- Izapidetza

Arrunta.

H.- Prozedura eta esleipen forma

Irizpide anitzeko prozedura ireki arrunta.

I.- Esleipen elektronikoko sistema

Derrigorrezko erabilera.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

J.- Esleipen irizpideak

Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabili behar diren eskaintzak baloratzeko irizpideak honako hauek dira, garrantziaren eta esleitzen zaien haztapenaren arabera handienetik txikienera zerrendatuta:

1. Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak: 55 puntu

- Proposamen ekonomikoa: 55 puntu.

Eskaintzarik merkeenari gehieneko puntuazioa emango zaio, eta gainerako eskaintzen puntuazioa formula honetatik aterako da:

Puntuazioa = (Eskaintza baxuena/Ebaluatu beharreko eskaintza) x 55

Neurriz kanpokoak izango dira esleipen-oinarriaren prezioaren ehuneko 15 unitatetik gorako beherakada dutenak.

Proposamen ekonomikoa ABZPen II. Eranskinean zehaztutakoaren arabera aurkeztuko da.

Proposamen ekonomikoak eurotan egingo dira eta prezioak bi dezimalekin adieraziko dira. Proposamenean zehaztu beharko da, partida independente bezala, jasan beharko duen Balio Erantsiaren Zergaren zenbatekoa.

Enpresa lizitatzaileen artean berdinketa gertatuz gero, hurrengo enpresen proposamenek lehentasuna izango dute eskaintza egiteko unean (lehentasun-ordenaren arabera).

A) Desgaitasun-egoeran edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden langileen ehuneko handiena duten enpresak; eta berdintasun-egoeran dauden eta gaitasunik ez duten langile finko gehien dituztenak.

B) Enpresa horietan aldi baterako kontratu gutxien dituenak.

C) Enpresa horietako bakoitzeko plantillan emakumeen ehuneko handiagoa izatea.

D) Aurreko irizpideak aplikatu ondoren berdinketak jarraitzen badu, zozketa egingo da.

2. Automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak: gehienez 45 puntu.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak gehienez 30 orrialde izango dituen txosten baten balorazioaren bidez emango dira. Txostenak hurrengo gaiak jorratu beharko ditu:

- Proiektuen deskribapena.....gehienez 15 Puntu:

    - Atal honek proiektu bakoitzaren deskribapen nagusia jasoko du, hala nola, izen original baten proposamena, nori zuzenduta dagoen, metodologia, prozedurak, edukiari buruzko proposamen teknikoa, proposamen zehatzak, sesio tipo bat, ebaluazio sistema eta jarduera parte hartzaile potentzialei helarazteko modua.

- Larrabetzuko berezitasun eta beharretara egokitzea.....gehienez 10 puntu:

    - Zati honetan proiektuak Larrabetzuko berezitasunetara nola egokitzen diren baloratuko da. Bertan, besteak beste, jarduera Larrabetzuren errealitate espazial, sozial eta paisajistikora nola egokitzen den landuko da. Era berean, Larrabetzuko Udaleko baliabideekin lan egiteko estrategiak jorratu beharko dira eta baita hala eskatzen duten udalerriko lurren hobekuntza-proposamen bat aurkeztu ere.

- Enpresaren deskribapena.....gehienez 10 puntu:

    - Atal honetan enpresa lizitatzailea eta jarduerak aurrera eramango dituen lan-taldea aurkeztuko da. Bertan, enpresaren deskribapen orokorra, horren jardueraren objektua, kontratuaren objektuarekin erlazioa duten egindako lanen azalpena eta frogapena, jardueraz arduratuko den lan-taldearen aurkezpena, formazioa eta horiek kontratuaren objektuarekin erlazioa duten egindako lanen azalpena eta egiaztapena jasoko dira.

- Proiektuen balioa gehitzen duten bestelako ezaugarriak.....gehienez 10 puntu:

    - Puntu honetan proiektuen kalitatea handitzen duten ezaugarriak azalduko dira. Adibidez, genero-berdintasuna, adineko pertsonen jarduera eta osasuna oro har sustatzen duten erakunde eta elkarteekin lankidetzan aritzea.

ERA AUTOMATIKOAN ZENBATU EZINEZKO IRIZPIDEEN BALORAZIOAN LORTU BEHARREKO GUTXIENEZKO PUNTUAK

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

SPKLren 146.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, balorazio orokorrean onartuak izateko, pertsona eta enpresa lizitatzaileei eskatu egingo zaie era automatikoan edo formula bidez zenbatu ezinezko irizpideetan gutxieneko puntuazioa eskuratzea; eta beraz, Kontratazio mahaiak ez ditu kontutan hartuko irizpide subjektiboen atalean gutxienez 22,5 puntu lortzen ez dituen pertsona edo enpresa lizitatzaileen proposamenak.

K. Behin-behineko bermea

Ez da eskatuko.

L. Behin-betiko bermea

Esleipen zenbatekoaren %5, BEZ kenduta.

LL. Prezioen berrikustea

Ez dagokio.

M. Aldaerak baimentzea

SPKLren 204. artikuluari jarraituz, honako aldaketa egin daiteke:

- Baldintza Teknikoen Agiriaren 2.4. puntuko jardueran, udal basoen mantenu jardueran baso berri bat sartzeko aukera egon daiteke. Udalak basogintza proiektuaren barruan baso bat berreskuratzen duenean horren mantenua zerbitzu honetan sartu daiteke. Gehienez bi baso berri izango liratezke.

N. Betearazpen epea/entrega

Kontratuaren betearazpen epea **hiru (3) urtekoa** izango da, 2026ko urtarrilaren 30etik aurrera kontatzen hasita.

Ñ. Luzapen aukera

Urte bateko bi luzapen: 1+1

O. Betearazpen lekua

Larrabetzuko udalerrian.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

P. Bermea eta jasotzeko epea.

Bermearen epea 2 hilabetekoa izango da, haren jasotze formaletik aurrera.

Q. Proposamenak aurkezteko epea

Epea 15 egun naturalekoa da, esleitze iragarkia kontratazioaren profilean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

R. Proposamenak aurkezteko lekua.

Larrabetzuko Udaleko lizitazio plataforma.

Proposamenak aurkezteko forma. Hiru gutunazal elektroniko aurkeztuko dira.

A GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Erantzukizunpeko deklarazioa –aurretiazko irizpideak.

B GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Automatikoki baloratu ezin daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa –aurretiazko ebaluaketa.

C GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- Automatikoki baloratu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa –ondorengo ebaluaketa-.

Gutun-azal bakoitzaren barnean adierazi beharko da, orrialde independente batean, dauden dokumentuen zenbakizko erlazio bat (aurkibidea)

Proposamenen edukia

A GUTUN-AZALA. ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA. Gutun-azal honek hurrengo dokumentazioa jasoko du:

- ABZPen I. eranskinarekin bat eginez kontratatzeko baldintzak bete egiten direnaren erantzukizunpeko deklarazioa.

Plegu honek eta legeak exijitzen dituen baldintzak bete diren ikusteko unea proposamenak aurkezteko azken eguna izango da.

B GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI ZENBATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK[1]

[1] Bigarren artxiboan hirugarren artxiboaren parte izan behar duten datuak sartzeak eskaintza baztertzea ekarriko du.

- Gutun-azal honetan sartuko da irizpide subjektiboak baloratu eta zenbatu ahal izateko derrigorrezko dokumentazioa, plegu honen karatularen J.2 atalean zehazten diren irizpide subjektibo edo ez-automatikoekin erlazioa dutenak.

  Idatzizko dokumentazioak, gehienez 20 orrialde izan behako ditu, DIN A4 formatuan.

C GUTUN-AZALA: ERA AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

- Proposamen ekonomikoa II. Eranskinean xedatutakoarekin bat eginda.

S. Publizitate gastuak

Pertsona edo enpresa kontratistaren kontura izango dira Aldizkari Ofizialetan, zein egunkarietan edota bestelako hedabideetan lizitazioaren publikazioaren ondorioz sor daitezkeen gastuak, 300 euroko gehieneko zenbatekoa arte.

T. Gaitasuna, derrigorrezko enpresari edo profesional gaikuntza eta kaudimena. (Dokumentazio administratiboa).

T1. Gaitasuna.

ABZPen ezarritakoaren arabera.

T2. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa eta profesionala.

1.- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa honako baliabide baten edo batzuen bidez egiaztatu ahalko da:

- Kontratuak aipatzen duen esparruko urteko negozio-bolumena, enpresaburuaren eraketa edo jarduera-hasieraren eta eskaintzak aurkeztearen daten arabera erabilgarri dauden azken hiruren arteko ekitaldirik onenari dagokionez, kontratuaren urteko batez besteko balioa izan beharko da gutxienez, hau da: 29.000,00 euro. Urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistroan onartu eta gordailututako urteko kontuen bidez egiaztatuko da. Enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta hala ez bada, enpresaburua egon behar duen erregistro ofizialean gordailututakoek. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen eta urteko kontuen liburuen bidez egiaztatuko dute urteko negozio-bolumena.

- Lanbide-arriskuengatiko erantzukizun zibileko aseguru baten egiaztagiria, 100.000,00 eurokoa.

2.- Kaudimen tekniko edo profesionala:

- Egindako prestazio nagusien zerrenda, azken hiru urteetan kontratuaren xede izan direnen izaera berekoak edo antzekoak, horien zenbatekoa, data eta hartzaile publiko edo pribatua adierazita. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, emandako zerbitzuak organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez, edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez, prestazioa egin dela egiaztatzen duten enpresaburuaren esku dauden agiriekin batera; agiri horiek, hala badagokio, zuzenean jakinaraziko dizkio agintaritza eskudunak kontratazio-organoari.

- Kontratuaren exekuzioa osatuko duten langile teknikoak zein izango diren, titulu akademikoak eta profesionalak jasoz, bai enpresariarenak, bai zuzendarienak, bai exekuzioaren arduradunarenak.

U. Kontratazio profila

www.Larrabetzu.eus

V. Azpikontratazioa

Kontratistak ezin izango ditu kontratuaren ondoriozko eskubide eta betebeharrak azpierrentan eman, laga edo eskualdatu Udalaren baimenik gabe.

W. Kontratuaren betearazpen baldintza bereziak

- <u>Pertsona edo enpresa kontratistaren betebeharrak.</u>

➢ Enpresa esleipendunak kontratua behar bezala gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak izango ditu.

➢ Enpresa esleipendunak arduradun bat izendatu beharko du, horrek, LARRABETZUKO Udalaren aurrean, enpresa ordezka dezan lanaren zerikusia duten gai guztietan.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

Pertsona hori kontratatuko den lanaren arduraduna izango da, eta behar besteko boterea izango du enpresa esleipendunaren izenean hartu beharreko erabakiak hartzeko. Erabaki horiek ezin izango dute eraginik jasan erabakiak hartzeko gaitasun falta dela-eta, ez legezko gaitasun faltagatik, ez gaitasun formal faltagatik. Era berean, pertsona hori izango da baliozko solaskide bakarra kontratuari buruzko gai guztietarako.

- Enpresa esleipendunak kontratua gauzatzean egindako jardueren garapenari buruzko hileko txostenak eman beharko dizkio LARRABETZUko Udaleko Gazteria Sailari. Txosten horietan, egindako ekintzak, horien balorazioa eta, behar izanez gero, hobetzeko proposamenak adierazi beharko ditu. Halaber, zerbitzua ematen den urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen, egindako ekintzen balorazio kualitatibo eta kuantitatiboa jasotzen duen azken memoria aurkeztu beharko du. Memoria horretan, gutxienez, puntu hauek jaso beharko dira:

  1. Programen garapenaren deskribapena, kronograma eta garatu diren hizkuntza.
  2. Betetze-maila, balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa.
  3. Informazioa biltzeko metodoak eta emaitzen adierazleak.
  4. Parte-hartzaileen kopurua eta ezaugarriak (adina, generoa, jatorria).
  5. Proiektuen garapenean sortutako dokumentu, argazki eta ikus-entzunezko funtsa.
  6. Aurrera begira hobetzeko iradokizunak eta proposamenak.

- Kontratu honen xede diren prestazioen berezko ezaugarriak direla eta, kontratuaren zerbitzu hizkuntza nagusia euskara izango da, beraz, erabiltzaileekin harremana euskaraz izango da eta euskaraz izatea sustatuko da.

  Udalarekiko kontratu honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz izango dira

Baldintza horiek kontratuko funtsezko obligaziotzat jotzen dira; beraz, obligazio horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake, Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bateginaren 211 artikuluari jarraiki.

- Lan arloko baldintzak:

- Kontratuaren exekuziora lotuko den pertsonala enpresa esleipendunaren menpe egongo da soilik. Horrek enpresari bezala dagozkion eskubide eta betebehar

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

guztiak izango ditu eta lan-araudi, gizarte-segurantza eta laneko segurtasun eta higienea eta arriskuen prebentziorako araudian ezarritako eta indarrean dauden baldintza guztiak bete beharko ditu; era berean, bere menpeko langileriatik eratorritako tributu zein obligazio fiskalak bete beharko ditu, eta Udala enpresa edota pertsona kontratista eta bere pertsonalaren arteko erlaziotik salbuetsita geratuko da.

Lizitatzaileek kontratuaren objektuaren jarduera burutzen duten langileei aplikatuko zaien lan-hitzarmenari buruzko erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztuko dute, eta kontratua esleitu ondoren, langile horiei ezartzen zaizkien lan-baldintzei buruzko edozein informazio jakinaraziko diote udalari hala eskatzen zaionean enpresariari.

Entitate esleipendunak, kontratuaren betearazpena ematen den artean, aplikagarri den lan-hitzarmenean zehaztutako soldata ordaindu beharko du langilearen kategoria profesionalari dagokiona, ezin izango delarik lan-hitzarmenak zehaztutako soldata baino baxuagorik ezarri.

- "Osasuna eta landarak eskolan" atalean lan egiteko, sexu izaerako deliturik ez duenaren ziurtagiria eduki beharko du atal horri egotzitako langileak.

- Enpresa esleipenduna ordainketa egokia egiteko konpromezua hartuko du, eta modu zuzenean jasango du, udaletxeari ezin izango diolarik inolako kasutan trasladatu, lan baldintza edo soldatetan ematen den edozein hobekuntzaren kostua, hala hobekuntza hori lan-hitzarmen paktu zein edozein akordiotik eratorria izan, nola beste edozein inguruabarretik eratorria izan.

  Enpresa edo pertsona kontratista lan arloko jurisdikzioaren aurrean erantzule izango da bere menpeko langileek dagozkien funtzioak egiterakoan izan ditzaketen istripuen gainean. Zentzu horretan, enpresa edo pertsona kontratista bere menpeko pertsonalari beharrezkoak diren segurtasun neurriak ezarri beharko dizkie, eta lan osasun eta segurtasunaren atalean aplikagarri diren xedapenak bete beharko ditu.

  Zerbitzu kontratua amaitzean ezingo da eman kontratuaren objektu diren lanak egin dituzten pertsonen kontsolidaziorik administrazio kontratugilearen pertsonal bezala.

- Gizarte-segurantzari dagozkion betebeharrei dagokienez, langileak altan eta bajan eman beharko dira, eta baita dagozkien kategoria profesional eta hitzarmen kolektiboaren araberako soldatak eta kotizazioak ordaindu ere.

- Enpresa esleipendunek erantzukizun zibileko asegurua eduki beharko dute indarrean, gerta daitezkeen ezbeharrei erantzuteko.

Baldintza horiek kontratuko funtsezko obligaziotzat jotzen dira; beraz, obligazio horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake, Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bateginaren 211 artikuluari jarraiki.

- Hizkuntza betebeharrak.

- Kontratu honen xede diren prestazioen berezko ezaugarriak direla eta, kontratuaren zerbitzu hizkuntza nagusia euskara izango da, beraz, erabiltzaileekin harremana euskaraz izango da eta euskaraz izatea sustatuko da.

- Udalarekiko kontratu honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz izango dira.

Baldintza horiek kontratuko funtsezko obligaziotzat jotzen dira; beraz, obligazio horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake, Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bateginaren 211 artikuluari jarraiki.

- Berdintasun klausulak

- Enpresa esleipendunak emakume eta gizonen arteko tratuan, enplegurako sarreran, klasifikazio profesionalean, formakuntza, soldatak etab.etan aukera berdintasuna bermatuko du.

  Enpresa esleipendunaren plantillarako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa aplikatuko dela bermatuko da, honako hauekin lotutako politiketan: prestakuntza, langileen hautaketa, sailkapen edo kategoria profesionalak, arreta, mailaz igotzea, soldatak, egonkortasuna edo lanean jarraitzea, ordezkaritza, lan-segurtasuna eta -osasuna, eta lanaldiaren iraupena eta antolamendua.

- Kontratua gauzatzeko langile berriak kontratatu behar badira eta enpresa kontratistak plantillan emakumeen ordezkaritza desorekatua badu, kontratua gauzatzeko epean zehar, lehentasuna eman beharko dio emakumeak kontratatzeari. Plantilla desorekatutzat joko da langile guztien% 50etik beherako emakumeen ordezkaritza duena.

- Era berean, kontratua gauzatzen den bitartean, pertsonen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzen laguntzeko neurriak mantenduko ditu enpresak. Zentzu horretan, enpresak aipatutako neurrien aplikazioa sartu beharko du urteko memorian.

- Kontratua gauzatzeko sortzen diren dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan, enpresa esleipendunak hizkera ez-sexista erabili beharko du, emakumeen aurkako bereizkeria edo estereotipo sexistak eragiten dituen edozein irudi saihestu beharko du, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta rol eta genero-identitate anitzen aldeko irudia sustatu beharko du. Horretarako, udalak izendatutako pertsonak aztertu beharko du aipatutako dokumentazio guztia, erabili eta zabaldu aurretik.

- Gainera, egiten diren ekintza guztietan, zuzenean edo zeharka, parte-hartze aktiboa eta kritikoa sustatuko da, eta gizarte-trebetasunak lehentasunezko alderdi gisa landuko dira.

Baldintza horiek kontratuko funtsezko obligaziotzat jotzen dira; beraz, obligazio horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar dezake, Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bateginaren 211 artikuluari jarraiki.

X. Bestelako zehaztasunak

Esleipendunak hartuko du bere gain kontratua, SPKLren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta agiri honetan jasotako klausulak eta kontratuaren oinarri diren baldintza teknikoak zorrotz betez gauzatuko da, Udalaren zuzendaritzapean, gainbegiratuta eta kontrolatuta. Udalak idatziz zein ahoz baliatuko ditu ahalmen horiek.

Esleipendunak harremanetarako arduradun bat izendatu beharko du zerbitzua emateari eta gorabeherei buruzko guztirako. Kontratuaren xede diren zerbitzuak gauzatzen diren bitartean, arduradunak Udalarekin behar diren bilerak egingo ditu kontratua behar bezala garatzen dela bermatzeko.

Kontratua exekutatzeko, kontratuaren klausulak eta administrazioak kontratistari kontratua interpretatzeko emandako jarraibideak bete beharko dira.

Kontratistaren kontura izango dira gastu eta zergak, Aldizkari Ofizialetako, Egunkari Ofizialetako edo beste edozein komunikabidetako iragarkiak, kontratuaren eskritura publikoa eta horniduraren xede diren ondasunak behar bezala gauzatzeko eta entregatzeko beharrezko lizentziak eta baimenak.

Era berean, enpresak kontratua gauzatzeko egin behar dituen gastu guztiak ordaindu beharko ditu, hala nola gastu orokorrak, finantzarioak, aseguruak, garraioak eta joan-etorriak, materialak, instalazioak, bere kargura dituen langileen ordainsariak, egiaztapen- eta entsegu-gastuak, tasak eta era guztietako zergak, BEZa, jarduera gauzatzeagatik legokiokeen zerga eta kontratua indarrean dagoen bitartean gauzatzearen ondoriozko beste edozein.

Lizitatzaileek egiten dituzten esleipen-eskaintzak eta -proposamenak, ondorio guztietarako, hainbat kontzeptu kargatzen dituzten edozein motatako zergetan sartuta daudela ulertuko da.

Hala ere, eskaintza ekonomikoan aparteko partida gisa adieraziko da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) zenbatekoa.

- Ordaintzeko modua

Prezioaren ordainketa ABZPen zehaztutakoaren arabera egingo da eta bankuko transferentzia bidez.

Pertsona edo enpresa kontratista derrigortua dago formatu elektronikoa erabiltzen fakturak jaulki eta igortzeko. Faktura elektronikoek Facturae, 3.4 bertsioan ezarritako formatuarekin bat egingo dute, eta ziurtagiri balioztatu batean oinarritutako sinadura elektroniko aurreratu batekin sinatuko dira.

Pertsona edo enpresa kontratistak faktura elektronikoa aurkeztuko du Larrabetzuko udaleko web orrialdean dagoen Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorraren bitartez.

Organo hartzaileari faktura era egokian igorri ahal izateko, adieraziko da:

Kontabilitate publikoaren organo eskuduna: Kontu-hartzailetza.
Kontratazio organoa: Alkatetza
Fakturaren organo hartzailea: Idazkaritza-kontuhartzailetza.

- Kontratua suntsiarazteko kausa zehatzak dira:

- SPKLaren 221. Artikuluan ezarritako orokorrak. Eta, zerbitzu kontratuentzako, 313 artikuluan ezarritakoak.
- Eskaintzan zehaztutako baldintzak eta kontratuaren objektua den prestazioa ez-betetzea edo gaizki betetzea.
- Pleguetan oinarrizkotzat jotako kontratuzko-obligazioen ez-betetzea.

Askatasunaren enparantza, 1.
48195 Larrabetzu, Bizkaia.
Tel: 944 55 70 27
www.larrabetzu.eus

- Lanen jabetza:

Kontratua gauzatzean egiten diren ikerketa eta dokumentu guztiak Larrabetzuko Udalarenak izango dira. Honek kopiatu, argitaratu eta zabaldu ahal izango ditu, osorik edo zati batean, lanen esleipendun den pertsonak edo enpresak aurkaratzeko eskubiderik izan gabe.

Pertsona edo enpresa esleipendunak ezin izango du, ez osorik ez zati batean, ez zuzenean, ez zeharka, kontratua gauzatzearen ondorioz egindako ikerketa eta dokumentazioa erabili edo zabaldu kontratazio-organoaren berariazko baimenik gabe.

Kontratuaren xedea jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak babestutako autoretza bada, enpresa edo pertsona kontratistak eskubide administrazio kontratatzaileari eman beharko dio.

Larrabetzun, 2025eko gabonilaren 9an.